

1.609.809 emakume greba eta mobilizazioetara deituta M-8an Euskal Herrian


> Datorren Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, 1.609.810 emakume greba eta mobilizazioetan parte hartzera deituta daude Euskal Herrian. Horietatik, 606.800 lan merkatuan lanean ari dira, eta beste 276.750, *formalki* inaktibitate egoeran daude, lan egoerari buruzko estatistika ofizialen arabera (INE eta INSEE). Egungo ekonomia eta ondasun sorreraren kontzeptualizazioan lan merkatuaren eta etxeko lan eta zaintzen gaineko dikotomiak sakonki erroturik jarraitzen du. Gero eta gehiago dira lanaren esparru formalean lanean ari diren emakumeak, baina *male breadwinner*-a indarrean da oraindik: emakumezkoen jarduera-tasa gizonezkoena baino 8,7 puntu apalagoa da (2017).

> Laneratze formalaren esparruan, Hego Euskal Herriko kasuan (2017) emakumeak nagusi dira *Oinarrizko lanbideetan* (%70,6), *Kontabilitateko- administrazioko langile eta bulegoko beste langileetan* (%66,4), *Jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes zerbitzuetako langile eta saltzaileen* (%66,0) artean. Katgoria sozioprofesionalen sailkapena desberdina da Ipar eta Hego Euskal Herrian. Alta, Ipar Euskal Herrian (2014) emakumezkoen presentzia oso metatuta dago *Enplegatuetan* (%82,8), hau da, *personal zerbitzuetan* (%93,0), *enpresetako bulego lanetan* (%85,1), *merkataritzan* (%80,3) eta *administrazio publikoan* (%79,8).

> Lan esparru informalaren gaineko zama medio lanaldi partzialen feminizazio-maila handia da Euskal Herrian (%76,4). Zertxobait handixeagoa da Ipar Euskal Herrian (%78,3) Hego Euskal Herrian baino. Ipar Euskal Herrian, ordea, eginkizun familiarak eta ibilbide profesionala uztartzeko neurrien presentzia indartsuagoa da eta emakumeon egoera sozioprofesionala arras hobea da. Hori dela eta, *formalki* inaktibotasun egoeran diren feminizazio-maila nabarmenagoa da Hego Euskal Herrian (15-64 urte bitartekoak %59,4a). Euskal Herriko inaktibo multzo honetan emakumezkoen nagusitasuna handia da 35-54 urte bitartean (%71,6), batez ere, 35-44 urte bitarteko belaunaldian (%75,4).

> Euskal Herri osoko errealitate zehatza ezagutzeko inkestan falta bada ere, Hego Euskal Herrian etxeko-lanei ekiten dioten *inaktiboak* %89,9a emakumezkoak dira, estatistika ofizialen arabera. Joeraz, emakumezkoen nagusitasun hori motelki doa apaltzen, eta azken hamarkadan, bost puntu inguru jaitzi da. Alta, 2015. urteaz geroztik, ekonomiaren susperraldiaren eskutik, joera hori eten eta etxeko-lanei loturiko inaktibotasunaren feminizazioa handitzen ari da berriz.


LANALDI MOTEN FEMINIZAZIO-MAILA (%).
EUSKAL HERRIA, 2017.




KATEGORIA SOZIOPROFESIOALEN FEMINIZAZIO-MAILA (%). HEGO EH, 2017.




KATEGORIA SOZIOPROFESIOALEN FEMINIZAZIO-MAILA (%). IPAR EH, 2014.



INAKTIBOTASUN EGOERAREN FEMINIZAZIO-MAILA (%), ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2017.



ETXEKO-LANETARA DEDIKATURIKO INAKTIBOEN FEMINIZAZIO-MAILA (%). HEGO EUSKAL HERRIA, 2003/2017.



Iturriak: INE, INSEE eta GAINDEGIA.